

## XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 3721

*EBAZPENA, 2014ko uztailaren 18koa, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariarena, lanbide-heziketako zikloen lanbide-moduluaren ebaluazioa eta kalifikazioa arautzen duena, ikastetxera joateko aukera agortu duten ikasleentzat, eta gainditu gabeko moduluak edukita, dagozkien deialdiak agortu ez dituztenentzat.*

Maiatzaren 3ko hezkuntzari buruzko 2/2006 Legearen V. Kapituluko 39. artikulua –hezkuntza-kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Legearen bidez aldatuak– honela dio: «Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren xedea da ikaslea lanbide-esparru batean jarduteko prestatzea, bizian zehar gertatu ahal diren lan-aldaketetara moldatzen laguntzea, pertsona gisa garatzeko eta herritar demokratikoa izateko bidea ematea, eta aurrera eginaraztea hezkuntza-sisteman eta enplegurako lanbide-prestakuntzan, bai eta bizitza osoan zehar ikasteko prozesuan ere.»

1997ko uztailaren 15eko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarenak, arautu egiten du zer nola ebaluatu Berriazko Lanbide Heziketa -Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bidez finkatua-, eta 1998ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez aldatutako 6. ataleko 10. artikuluan dioenez, «Ikasleak ikastetxera gehienez bi ikasturtez joanda egin ahal ditu lanbide-modulu bereko jarduerak, baldin eta lehen ikasturtean gaitasun-unitate bati lotutako gutxienez modulu bat gainditu badu, lanbide-modulu beraren ebaluazio- eta kalifikazio-saioetara aurkeztu ahal da gehienez sei alditan, eta curriculuma modu esanguratsuan egokitutako ikasleen kasuan artikuluko honetakoak ez diren beste irizpide batzuk erabil daitezke.»

2010eko otsailaren 19ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarenak, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik datozen Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duenak EAEko ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, honela dio 8. artikuluan: «Ikastetxera joanez, lanbide-modulu bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal da, baina Lantokietako Prestakuntza eta Proiektua bitan soilik.»

Batzuetan, gainera, heziketa-ziklo batzuen eskaintza oso murrizta da eta, emateari utziz gero, egindako eta gainditu gabeko ikasketak berreskuratzeko aukerarik gabe gera daiteke ikasle-multzotzat, dagozkien deialdiak agortu gabe.

Halakoetan konponbideak bilatu behar dira, eragindako ikasleek hezkuntza-sisteman jarraitu ahal izan dezaten eta lanbide-prestakuntzan aurrera joan daitezen.

Hori horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe publikoek eta pribatuek antolatutako dute lanbide-moduluaren ebaluazioa eta kalifikazioa ikastetxean matrikulatuak egonak izanda modu osoan bertara joanez heziketa-zikloa ikasten jarraitzeko aukerak agortu dituzten ikasleentzat eta, gainditu gabeko moduluak edukita, dagozkien deialdiak agortu ez dituztenentzat.

Bigarrena.– Ebazpen honetan aipatutako ebaluazioan eta kalifikazioan sartuko dira ikastetxean matrikulatuak egonak izanda aurreko paragrafoko egoeran dauden ikasleak.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan aurreikusitako ondorioetarako, ikasle bakoitza heziketa-zikloan matrikulatuta egon den azken ikastetxean egingo da matrikula, irailean. Matrikulazioa egingo da ikastetxera joanez egindako eta deialdiak agortu gabeko moduluan edo moduluetan eta, halakorik balitz, Lantokiko Prestakuntzako eta Proiektuko moduluetan.

Laugarrena.– Matrikulatutako ikastetxe bakoitzeko ikasketaburuak azterketen egutegia egin eta iragarki-taulan ipiniko da, haiek hasi baino gutxienez hilabete lehenago. Egutegi horretan agertuko dira lanbide-modulu bakoitzeko azterketak egiteko egunak, orduak, lekuak eta gehienezko denbora. Haiek egun gutxi batzuetan ez biltzeko ahalegina egingo da. Azterketen egutegiak Lantokietako Prestakuntzako modulua eta Proiektuko modulua ikasturtearen barruan egiteko aukera eman behar die horiek egiteko baldintzak betetzen dituzten ikasleei.

Bosgarrena.– Ikasketaburutzak hala proposatuta, dagokion Departamentuak prestatu eta ebaluatuko ditu lanbide-modulu bakoitzeko azterketak, eta azterketak gainditzeak lanbide-modulua nahikoa menderatzen dela adierazi behar du. Emaitzak akta batean jaso eta ikasle bakoitzaren espedienteak azalduko dira. Dokumentazio hori ikastetxeko Idazkaritzan gordeko da.

Seigarrena.– Matrikula eta ebaluazioaren kudeaketa egingo dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezarritako aplikazio informatikoaren bidez.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak ofizioz edo ikastetxeak eskatuta baimendu ahal du heziketa-zikloren bat emateari utzi izanak eragindako ikaslea matrikulatzea, ikastetxera joanez egindako moduluetan eta ikasleari dagozkion deialdiak agortu gabe daudelarik, baldin eta beste ikastetxe batean matrikulatzeko zentzuzko aukerarik ez badu.

Ebazpen honen aurreko paragrafoetan adierazi bezala burutuko dira matrikulazioa eta azterketen antolaketa.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek prozedurari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarria izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 18a.

Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria,  
RAMÓN MARTÍNEZ DE MURGUÍA URRETA.